

## HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

### Merkataritza eta ostalaritza ere euskaraz

#### INFORMAZIO OROKORRA

DATA: 2016-05-09

1	<b>Izena</b>	Merkataritza eta ostalaritza ere euskaraz
2	<b>Hizkuntza</b>	Euskara
3	<b>Lan-arloa</b> (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...)	Merkataritza
4	<b>Kontakturako helbidea edo telefonoa</b>	alex_aisa@donostia.eus/ 943 481748
5	<b>Sare sozialetako kontaktuak</b> (Webgunea, Facebook, Twitter...)	<a href="http://www.merkatari.eus">www.merkatari.eus</a> <a href="http://www.donostiaeuskaraz.eus">www.donostiaeuskaraz.eus</a> @euskaraz

#### PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIBAPENA

1	<b>Praktikaren azalpena</b>	Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorean bezeroei euskaraz hitz egiteko aukera ematen dieten establezimenduak identifikatzea eta establezimendu horien sustapena egitea da
2	<b>Praktikaren azalpenaren laburpena</b>	<p>Donostiako establezimenduak bisitatu egiten dira banan-banan, egitasmoaren berri eman, baldintzak betetzen ote dituzten ikusi eta hala bada, egitasmoan parte hartzeko hitzarmena sinatu. Parte hartzeko baldintzak bi dira nagusiki:</p> <p><b>1-Jendaurrean ari den langileen %50ek euskaraz jakin behar du</b></p> <p>Bezeroei arreta eskaintzen ari diren langileen erdiek edo gehiagok euskaraz ondo hitz egiteko gaitasuna behar dute</p> <p><b>2- Lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartuko dute</b> eta euskaraz egin nahi duen bezeroari aukera hori bermatuko diote.</p> <p>Baldintza hau bete eta egitasmoan parte hartzeko interesa duten establezimenduek eranskailua jarriko dute, kalera begira ( atean edo erakusleihoan) bezeroek hori ikustean bertan euskaraz egin dezaketela jakin dezaten.</p> <p>Horrez gain, <a href="http://www.merkatari.eus">www.merkatari.eus</a> eta <a href="http://www.donostiaeuskaraz.eus">www.donostiaeuskaraz.eus</a> webetan establezimenduen berri ematen da bertako mapa interaktiboan.</p> <p>Azkenik, establezimendu hauen sustapen kanpainak ere egiten dira herritarrek jakin dezaten non jaso dezaketen zerbitzua euskaraz.</p>

3	<b>Aurrekariak</b> (Inplementazioa burutzeko motibazioa, identifikaturiko beharrak)	<p>Merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera sustatu aurretik, Euskara zerbitzuak merkataritzaren azterketa soziolinguistiko bat egin zuten ia 600 bisita eginez, bi helburuekin:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Merkataritzan eta ostalaritzan euskarak bizi duen egoera soziolinguistiko ezagutzea.</li><li>2. Euskara sustatzeko Donostiako Udalak eskaintzen dituen zerbitzu eta laguntza ezberdinez baliatzeko establezimenduak duen interesa ezagutzea.</li></ol> <p>Azterketa horren bidez hizkuntzek komunikazio komertzialean duten garrantzia, establezimenduetako hizkuntzen ezagutza, merkataritza arloko hizkuntza paisaia edota euskararen erabilerari buruzko datuak establezimenduetan jaso ahal izan dira.</p> <p>Horrez gain, Donostiako Udalak establezimenduen esku jartzen dituen hizkuntza zerbitzuen inguruko informazioa ere eman du: diru laguntzak, ikastaroen eskaintza, testuen itzulpena edota zuzenketa egiteko zerbitzua, komunikazio komertziala hobetzeko tresnak eta abar. Hori dena aztertuta, ondorioztatu zen euskarazko zerbitzua emateko gaitasuna zuten establezimenduak identifikatzen hastea beharrezkoa eta posible zela</p>
4	<b>Helburuak</b>	<p>Merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera sustatzea</p> <p>Profesionalak ohartaraztea euskarazko zerbitzua eskaintzea onuragarria dela beren negozioentzat</p> <p>Sektorea eta herritarrak sentsibilizatzea euskara erabiltzeko</p> <p>Egitasmoan parte hartzen duten establezimenduak sustatzea ( Komunikazio kanpainak, mapa interaktiboa, eta abar).</p> <p>Euskara Zerbitzuak Donostiako merkatariei eta ostalariei eskaintzen dizkien zerbitzuen berri ematea zuzenean.</p>
5	<b>Eragin esparru nagusia eta albokoak</b>	<p>Donostiako merkatariei, ostalari eta zerbitzu sektoreko langileak. Euskara dakiten herritarrak</p>
6	<b>Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak</b>	<p>Sektoreko eragileak (Donostiako Sustapena, Donosti SShops, Gipuzkoako Merkatarien Federazioa, Auzoa, Zaharrean eta Gipuzkoako Ostalaritza Elkartea)</p> <p>Euskararen aldeko eragileak: ( Bagera, Batzen, Bizarrain, Plazara Goaz, Parte Zaharrean Bizi, auzoetako euskara batzordeak).</p>
7	<b>Inplementazio-epea</b>	<p>2014-2018</p>

## INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	<b>Hedapena</b> (eragiten dien pertsona kopurua, barnekanpo hedapena...)	5.000 bat mila establezimendu daude Donostian. Guztiak bisitatuko dira egitasmo honetan
9	<b>Inbertsioa</b> (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	2014-2015: 35.000€ urtero 2016-2017: 55.000€ urtero 2018:?
10	<b>Lortutako emaitzak</b>	Orain arte 625 bat establezimendu atxikitu dira egitasmo honetara.
11	<b>Dokumentazioa erreferentziatzko materiala</b>	1-Establezimenduen azterketa soziolinguistikoa: <a href="http://www.donostiaeuskaraz.eus/merkatari/euskara-donostian/sekzioak/establezimenduen-azterketa-soziolinguistikoa">http://www.donostiaeuskaraz.eus/merkatari/euskara-donostian/sekzioak/establezimenduen-azterketa-soziolinguistikoa</a> 2-Egitasmoan parte hartzeko gida metodologikoa, baldintzak, izena emateko aukera eta gainerako informazioa <a href="http://www.donostiaeuskaraz.eus/merkatari/euskara-erabili/sekzioak/zure-establezimenduan-ere-euskaraz">http://www.donostiaeuskaraz.eus/merkatari/euskara-erabili/sekzioak/zure-establezimenduan-ere-euskaraz</a>
12	<b>Aurkezpen bideoa</b>	Bi bideo daude ikusgai webean: <a href="http://www.donostiaeuskaraz.eus/merkatari/euskara-erabili/sekzioak/euskaraz-artatzen-duten-establezimenduak">http://www.donostiaeuskaraz.eus/merkatari/euskara-erabili/sekzioak/euskaraz-artatzen-duten-establezimenduak</a>
13	<b>Intereseko informazio gehigarriak</b>	<a href="http://www.merkatari.eus">www.merkatari.eus</a>